

---

# Lege-hizkera euskaraz: begiratu bat historian zeharrekoari eta zenbait gogoeta XXI. mendekoaz

MIREN AZKARATE<sup>1</sup>, ALBERTO LOPEZ BASAGUREN<sup>2</sup>

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

## Laburpena

Artikulu honetan, izenburuak berak dioen bezala, zenbait gogoeta plazaratu nahi ditugu euskarazko lege-hizkeraren gainean. Hasi XVII. mendeko testu xumeetatik eta gaurko corpus berezi, terminologia banku, ikasmaterial eta testu juridiko sorta mardulera iristeko egindako ibilbidearen nondik norakoez arituko gara. Garbizalekeria eta itzulpenaren morroi izatea ezaugarri (izan) dituen hizkera juridiko horren erronkak eta aurrera egiteko oinarriak zein diren zehazten saiatuko gara, gure inguruko hizkuntzalari eta idazleen idatziak lagun hartuta.

## 1. Sarrera: lehen gogoeta

Gauza jakina da euskara, mendeetan zehar, baztertua —eta auto-baztertua— izan dela botere publikoen eremutik, salbuespen oso urriak kenduta. Euskarak ez du aukerarik izan legeen munduan hazteko, bilakatzeko, egokitzeko, lege-hizkera bere egiteko. Ez bakarrik aukerarik eman ez digutelako; baita, euskaldunek eremu hori landu ez dugulako ere. Gogora dezagun Axularrek «iracurtçailleari» esaten diona *Geroren* hitzaurrean: «Baldin eguin baliz euscaraz hanbat liburu...».

Koldo Mitxelena (1978: 26) aspaldi ohartarazi zigun gisa, «mende luzeen lasaikeriak honenbeste eginkizun bizkarreratu digun garaian» bizitzea egokitu zaigu. Hainbeste dira halako eginkizun bereziki zorrotza eskatzen duten alorrak; baina ez da dudarik zuzenbidekoak egin behar diela aurre eremu horien guztien artean, mendeetako lasaikeriak bizkarreratu dizkigun eginkizunik zorrotzenetakoei, astunenetakoei eta zailenetakoei. Zuzenbidearen eremua eta, ezinbestez, berarekin lotuta dauden eremuak; besteak beste, eta guztien gainera, administrazioarena, edo hobeto esanda, administratioena. Bereziki zaila baita eremu horretan egokitu zaigun erronka, aldi berean elkartzen direlako lexikoari dagozkion erronkak eta, bere osotasunean, *diskurtsoaren* hizkerari dagozkionak. Lege-hizkerarena ez da, bakarrik —agian, oso inportantea izan arren—, lexiko teknikoaren arazo hutsa.

Legelariok —eta hori nik diot, Alberto Lopez Basagurenek; Miren Azkarate ez da honetan bekatari— harroegiak izan gara uste izan baitugu nahikoak ginela geu, zuzenbidean adituak iza-

---

<sup>1</sup> Egileak lan hau finantzatzeko izan duen dirulaguntza eskertu nahi du: Eusko Jaurlaritza, IT1169-19 (2019-2021).

<sup>2</sup> Grupo de Investigación del Sistema Vasco de Ciencia y Tecnología, Gobierno Vasco, IT1380-19.

tearren, behar genuen lege-hizkera eta lexikoa sortzeko eta egokitzeko. Gauza jakina da euskaldun bakoitzaren buruan hizkuntzalari bat ezkutatzen dela. Baina gaztelania hain hizkuntza finkatua eta estandarizatuta izanda ere, legelariak hizkuntza horretan sortu duten —eta darabilgun— hizkera, hiztun arruntentzat sarritan higuin garria, ulergaitza eta okerra baldin bada, umilago izan behar genuen geuk geure hizkuntzaren ahultasunak ezagututa. Aspaldi ohartarazi zigun Koldo Mitxelena (1954: 39): «aberatsek galera handirik gabe egin dezaketena, ordea, ez zaie behartsuei egoki. Eta nor gu baino behartsuago gai honetan?» Mitxelena hori esan zuen literaturako klasikoak irakurtzearen eta argitaratzearen beharraz ari zela. Baina bada uste duenik Mitxelena ez lukeela berdinean esango lege-hizkerak gurean pairatzen duen egoeraren aurrean?

## 2. Euskara Batuaren sorrera

Euskararen eta lege-hizkeraren beharrik handienetakoa aldaera estandarrik eza izan da. Berrogeita hamar urte besterik ez dira igaro Euskaltzaindiak euskara batuaren abiapuntutzat hartzen den Kongresua antolatu zuenetik. Izan ere, 1968an Mitxelena Arantzazun aurkeztu zuen txostena, *Ortografia*, ondoren egindako lanaren bide-orriztat har daiteke: idazkera edo ortografia, antzinako euskal hitzen formak (ondare lexikoa), hitz berrien eraketa eta besteetatik hartuen forma (eratorpena eta hitz-elkarketa batetik eta maileguak nola egokitu, bestetik), morfologia eta joskera. Hein handi batean, Arantzazun bertan egin zen *hautatzea*, hizkuntza bat estandarizatzeko lehen eginkizuna<sup>3</sup> (Haugen 1987): «Ez da nor Euskaltzaindia, oraingoz behintzat, oinarritzat zein euskalki hautatuko duen erabakitzeak. Badirudi, halarik ere, euskara idatziaren beharretarako egokiagoak direla, besteak beste (eta Bilbo euskaldun ez delarik), erdialdeko dialektoak bazterretakoak baino» (Mitxelena 1968)<sup>4</sup>. Erdi aldeko euskalkietara jotzea defendatu zuen Villasantek ere (1968).

Ondoko urteetan hasi zen bigarren eginkizuna, *kodetze* lanari dagokiona. Baturako hautatutako forma haiek hedatu ziren garaiko eragileen artean, ebaluatu zen nolako harrera izan zuten 1970eko hamarkadako erabakiek. Hau da, kodetzearen ondoren *implementazioa* etorri zen, aldaera estandarra hedatu zen eta komunikazio formalaren esparrura eraman. Baina hizkuntza bateko aldaera estandarra eratzea amaierarik gabeko lana da; zentzurik estuenean, beti geratzen da *elaborazio* lana, hau da, aldaera estandarra eguneratzea, aberastea eta komunikazio-funtzio guztietarako baliagarri egitea (besteak beste, terminologia eguneratzeko lana edo modu bateko eta besteko estiloak garatzea).

Inguruko hizkuntzetan ere, estandarizazioa aspaldi amaitutzat ematen denetan, beti izaten dira terminologia beharrak, hiztegia eguneratu beharrak. Bestelako kezkarik ere ez da falta izaten, ordea: «Dena dela, hizkuntza guztiek egin behar dute egoera berrietara egokitzeko ahalegina. Hizkuntza txiki nahiz handi izan, denek egin behar zenbait aldakuntza biziko badira. Eta aldakuntzak beti ekarri ohi du egonezina, eztabaida eta zalantza. Hizkuntza handien jauregietan ere sari

<sup>3</sup> Ezagunak dira Haugenek (1987: 59), hizkuntza-plangintzaz ari dela, jasotzen dituen lau eginkizunak. Horietatik bi gizar-teari dagozkio, eta beste biak hizkuntzaren barrukoak dira:

|          | Norm             | Function           |
|----------|------------------|--------------------|
| Society  | (1) Selection    | (3) Implementation |
| Language | (2) Codification | (4) Elaboration    |

<sup>4</sup> Euskara estandarera egokitu dugu aipamena. Bestalde, morfologian erdialdeko euskalkiak hautatu izan arren, lexikoan edo joskeran euskalki guztietako ekarriak integratu dira, neurri batean edo bestean.

ikusten dira horrelako egoerak. Baita frantsesaren eta gaztelaniaren jauregietan ere. Ingelesaren eragina gehiegizkoa dela, gazteriaren hizkera behar bezain jaso eta aberatsa ez dela, ortografian akats larregi egiten direla... horiexek dira, besteak beste, frantsesaren eta gaztelaniaren jauregietan azken boladan entzuten diren kezka eta aldarriak» (Zuazo, 2000: 13). Hizkuntza gutxituetan askoz nabarmenagoa da behar hori: «Eta hizkuntza handien jauregietan horrelako erabakiak hartzen badira<sup>5</sup>, akademiek eta gobernuek horrelako astinduak eragiten badituzte gizartean, zer ez ote da gertatuko hizkuntza txikien bordetan! Astinduak ez ezik, benetako lurrikarak, benetako iraultzak ere izaten dira hauetan» (Zuazo, 2000: 14).

Euskararen kasuan, *hautatze*, *kodetze* eta *inplementazio* ahaleginak izandako harrera iraultzat har daitezke, nolako arrakasta izan duten kontuan hartuta: «Ikastola, gaueskola, Euskara Batua, euskaldun berriak, euskara alderdi erdaldunetara hedatu izana, eta euskaldunon arteko batasuna estutu izana dira (...) 60ko hamarkadan abian jarri zen Iraultzak ekarri zituen ondorio nagusiak» (Zuazo, 2000: 17). Iraultza horretaz gain, euskarak, *elaborazio* aldian, esparru bakoitzeko diskurtso mota egokia landu eta garatu beharra ere izan du, terminologia egokia adostu eta hedatu beharra. Edo, Xabier Lizardiren hitzak erabiliaz, larreko euskara «noranahiko» bihurtzeko gaitzea; eta, horretarako, hainbat jakintza-eremutarako prestatzeko, «jakite hegoek igoa» izan behar. Euskara noranahiko bihurtze eta jakite hegoek igotze horretan, Zuzenbidearen alorrerako ere prestatu behar izan da euskara.

Nolanahi ere, euskara batuaren sorrera 1968an izan zela esan arren, Arantzazu aurretik ere izan ziren saioak eta ekarpenak, hala nola ortografiari buruzko 1901eko eta 1902ko Hendaiako eta Hondarribiko biltzarrak<sup>6</sup> edo 1964an Ipar eta Hegoaldeko hainbat idazlek ortografiaren edo morfologiaren adostutako neurriak (1964ko Baionako Biltzarraren erabakiak<sup>7</sup>).

### 3. Administrazio- eta zuzenbide-testuak 1937 arte

Euskararen batasunerako ahalegina Arantzazuko Kongresuaren aurretik hasi zen bezala, 1968a baino ondotxo lehenagokoak dira Zuzenbidearen edo Administrazioaren alorreko testuak ere (Elosegi, 2002). XVII. eta XVIII. mendeetakoak batik bat Iparraldeko testuak dira, baina baita Hegoaldekoak ere: administrazioen arteko gutun ofizialak, lehen udal ordenantza eta bestelako udal agiriak, epaiketa agiriak; zuzenbide pribatua, erlazio juridiko eta merkataritzakoetako euskarazko agiriak, eta abar. XIX. mendean ugalduta egiten dira Hegoaldeko euskarazko testuak (elkarrekin araudiak, maizter-kontratuaren ordainketa agiriak...), eta 1850 ingurutik aurrera goi-mailako administrazioetako testuak ere aurki daitezke (Bizkaiko Batzar Nagusietako aktak, erdaraz idatzi eta euskarara itzuliak)<sup>8</sup>.

<sup>5</sup> 1994ko Toubon legeaz ari da, kongresuetan, unibertsitatean, iragarki eta publizitate-mezuetan, eta baita erakunde, elkarte eta marka izenetan ere, frantsesa erabiltzea babestu eta bultzatu zuen legeaz. Lege honek oinarri hartzen du bi urte lehenago, 1992an, Konstituzioa eraberritzean, 2. artikuluan ezarri zen xedapenean: «Frantsesa da Errepublikako hizkuntza». Kezka beretik sortu zen Fernando Lázaro Carreter akademikoaren *El dardo en la palabra* ere (1997, Galaxia Gutenberg-Círculo de Lectores) 1975etik aurrera idatzitako artikuluen bilduma.

<sup>6</sup> Zalvide, M. (2003): «Hendai-Hondarribietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntza plangintzaren iturburu», *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*. Bilbo: Sabino Arana Elkargoa, 1-134.

<sup>7</sup> Davant, J.L. (2005): «Baionako biltzarra (1964)», *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*. Iker-17. Bilbo: Euskaltzaindia, 207-216.

<sup>8</sup> Gallastegiren (2005) lanean ikus daitezke horietako zenbait.

Mende horietako testu batzuk euskaraz sortuak dira; beste batzuk, itzulpenak. Iparraldekoetan «nabarmena da, itzuliak ez direnetan ere, frantsesezko hitz eta formula burokratikoak euskaratuturik agertzen direla. Terminologia juridikoa, hein handian maileguzkoa da» (Elosegi, 2002: 197). XX. mendearen hasieran, 1917an eta 1918an, hurrenez hurren, Bizkaiko Aldundia zirkularrak bi hizkuntzetan zabaltzen hasi zen eta Gipuzkoako Komisio Probintziala, berriz, udaletara bidalitako zirkularrak bi hizkuntzetan bidaltzen. Horiek ere, itzulpenari zor zaizkion testuak dira. Beraz, benetako testu juridikotzat eman daitezkeen artean, nabarmena da testu itzulien pisua.

XVII. mendetik aurrerako testu horiei dagokienez, bestalde, kontuan hartu behar da aldaera estandarrik gabeko garaiko ahaleginak direla; Haugenek (1987) aurreikusitako lau eginkizuneko lanari inork ekin aurrekoak. Ez da, beraz, harrizkoa Elosegik (2002: 214) esatea «gainerako euskal testuetan bezala, testu juridiko-administratiboetan ageri da batasun falta eta estandarrik eza». Hala ere, «Lapurdikoa udaletan, gutunerian, notario-eskrituretan, garatutako hizkeran, frantses administratiboaren eragin itzela zegoen, dudarik gabe, baina era berean, eredu nahiko bateratu bat bazegoen, bi mende luzetan erabili zena eta euskal hizkera juridiko-administratiboaren hasikintzat jo zitekeena» (Elosegi, 2002: 214). Hasikin horrek ez zuen izan aukerarik hazteko eta garatzeko. Berehala ikusiko dugun bezala, bestelako helburua zuten Hegoaldeko euskarazko testuek. Eta Zuzenbideko hizkeraren ezaugarriek ere ez zion laguntzen mugaren bi aldeetarako balio zezakeen hizkera eta terminologiari.

Aldaera estandarra landu gabe, bat-batean ekin zitzaion 1936an *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa / Diario Oficial del País Vasco* bi hizkuntzetan argitaratzeari; horixe da ordura arte inoiz argitaratutako testu juridikoen bildumarik garrantzitsuenak. Baina testu hauetan eta, oro har, XX. mendearen hasierakoetan, nabarmena da hizkuntzaren funtzio sinbolikoa: «hainbat testu ez da egiten (aurreko garaietan gertatzen zen bezala) euskaldun jendeak hobeto uler dezan, hizkuntza agerrazteagatik baizik» (Elosegi, 2002: 212).

Laburbilduz, aldi bakoitzeko testu-kopurua gorabehera, ezaugarri hauek dituzte XVII. mendean hasi eta 1937 arteko administrazio eta zuzenbide alorreko idatziek: itzuliak dira gehienak, ez jatorrizkoak (eta, berehala esan dezagun, ezaugarri berbera dute 1980tik aurrerakoek ere); funtzio desberdina dute Iparraldekoek eta Hegoaldekoek (XX. mendekoek). Iparraldean komunikazio-funtzioa lehenesten da eta horrek dakar nabarmena izatea testu horietako lexiko eta esapideetan frantses administrazioko hizkeraren eragina. Hegoaldean, aldiz, batetik funtzio sinbolikoa zuen euskara erabiltzeak, komunikaziokoa baino areago; eta, bestetik, agerikoa zen Larramendiz geroztik indarra hartu zuen garbizaletasunaren eragina.

#### 4. Larramendiren eta Hegoaldeko eredu garbizalearen eragina lexikoan eta (zuzenbideko) terminologian

Euskara Batuaren aurreko saiotzat hartu ditugu XVII. mendetik aurrera euskaraz idatzitako testu juridikoak. Hala da, ia XX. mendearen amaiera arte ez duelako izan euskarak aldaera estandarrik. Eta, hala ere, ezin esan daiteke aldaera estandar bati buruzko ikuspegirik (nolabaiteko ikuspegirik) ez zegoenik Larramendiren edo Aranaren eta bere jarraitzaileen artean (Azkarate 2015, Azkarate eta Lindemann 2018). XVIII. mendean, Larramendiren (1745) hiztegia, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, hiztegi soil bat baino askoz gehiago izan zen. Inguruko hizkuntzak bezala, euskara ere kultura-hizkuntza izan zitekeela erakutsi nahi zuen Larramendik; horregatik ditu bi helburu nagusi bere hiztegiak. Batetik, «kanpoko» erdaldunei, arrotzei erakutsi

euskara hizkuntza bizia eta jakintzagaietarako egokia zela (Mitxelena, 1961), eta, bestetik, euskara eredu jaso eta garbiago bat eskaini nahi zien garai hartako predikariei. Bi helburu horiek kontuan hartuta, Mitxelenak (1984: 33) dio: «Larramendi izan da, lehenbiziko aldiz eta erabat, hizkuntza larrekoa noranahiko bihurtu nahi izan duena». Terminologia beharrekin topo egin zuen Larramendik ere jakintzagaietako hitzak sartu nahi izan zituenean; sartu baino areago, asmatu, esan beharko genuke, *voces facultativas* deitzen dituenak. Behar zituen termino horiek euskaratik beretik sortzera jo zuen; latinetik edo grekotik mailegatu ordez, nahiago izan zuen euskarak dituen baliabideetara jotzea. Ez da hau lekua Larramendiren sorkariak zehatz-mehatz aztertzeko, nahiz merezi lukeen norbaitek Larramendiren termino juridikoak biltzea. Hauexek jaso ditugu, guregana heldu ez direnen erakuskari: *iritarau* ‘política’, *bialkinde* ‘embajada’, *bialkin* ‘embajador’, *inolazkogo* ‘nulidad’, *bedoi* ‘prueba (con la que se justifica algo)’, *atzipe* ‘dolo, engaño’, *ekadoiko* ‘jurídico, judicial’, *araujarraide*, *araujakintza* ‘jurisprudencia’, *kotiza* ‘tributo’, *legaraude* ‘legalidad’, *legarrauko* ‘legítimo’ edo *legoki* ‘legítima, parte de la herencia’. Askok dira ordain bateko baino gehiagoko sarrerak ere: ‘ministro’ *ekidari*, *ministro*, ‘regente’ *erregentea*, *erondaria*, *gobernataria*, *bazkazalea*, ‘aduana’ *aduana*, *peajelekua*, *kostamaga*, ‘pena, castigo’ *pena*, *minaria*, *gaitzondorea*. Larramendik sorturiko hitzetako batzuk, ostera, guztiz onartuak daude gaurko hizkera juridikoan: *besterendu*<sup>9</sup> ‘enajenar’, *ordezte* ‘subrogación’, *urube* (orube) ‘solar’, *gaieztua* (*zegaitua*) ‘inhabilitado’ guztiz forma horretan izan ez arren, *salaketa* ‘acusación’...

Larramendiren hiztegiko proposamenek eman zuten bide, adibidez, 1820. urtean *Jaquin-bide Iritarautia* argitaratzeko<sup>10</sup>. Eta Larramendiren hiztegiko terminoak ageri dira *Lore-jokoetan* ere: *ekauta* ‘diputación, comisión’, *goarpelari* ‘secretario’, *neurkida* ‘regla, ordenanza’, *otsaunditu* (*hotsanditu*) ‘solemnizar’ edo *salkindari* ‘traidor’, gutxi batzuk baino ez ekartzearren hona<sup>11</sup>.

XIX. mendearen amaieran, Arana Goirik, garai hartan beste hizkuntza askok eginiko bidetik, jatorri arrotzeko hitz guztiak baztertu eta haien ordez euskal hitz jatorrak sortu nahi izan zituen<sup>12</sup>, askotan euskarazko eratorbidea edo hitz-elkarketa arauak kontuan hartu gabe. Garai horretan nagusitu zen purismoaren aldeko joerak nabarmen baldintzatu zuen orduan sortutako testuetako jostakera, bai eta terminologia ere. Hala ere, Aranaren neologismo askok iraun dute eta gaur euskara estandarreko lexikoaren zati dira (Azkarate eta Lindemann, 2018): *alderdi*, *jaurlaritzza*, *abertzale*, *hauteskunde*, *hautetsi*, *ordezkari*, *batzorde*, *idazkari*, *espetxe*, *aldundi*, *aberri*, *bazkide* edo *lehen-dakari*.

Testuinguru horretan hasi zen argitaratzen bi hizkuntzetan *Euzkadi’ko Agintaritzaren Egunerokoa / Boletín Oficial del País Vasco*<sup>13</sup>. Ez da zaila Sarriegirekin (1985: 11) bat etortzea eta laudagarri eta txalogarritzat jotzea euskarari ordura arte inon eman gabeko hedadura ematea, «ez denbora, ez oinarri, ez lasaitasun eta agian epe laburrerako asmorik (euskara oinarria izanik) ez bazen ere» eta «nahiz eta berori ezinbestean itzulpen huts-hutsa izan eta beharbada ez hizkuntz eredurik proposagarrien eta aukerakoenean egina ere, orduko **Agintaritzaren Aldizkarian** ikus

<sup>9</sup> Larramendi eredu harturik sortu bide zituen Azkuek *inorendu* adiera berarekin (‘enajenar’) eta *norberarendu*. Azken honek ez du agerraldi bakar bat ere ez *Zuzenbide corpusean* eta ez *Egungo Testuen Corpusean* ere.

<sup>10</sup> Cadizko Konstituzioa euskaraz, Jose Felix Amundarainek izenburu horrekin itzulia. Zumalakarregi Museoen webgunean kontsulta daiteke eta, nahi izanez gero, testu osoa eskuratu ere bai pdf formatuan [http://www.zumalakarregimuseoa.eus/eu/ekintzak-eta-zerbitzuak/ikerketa-eta-dokumentazioa/argitalpen-digitalak/1812ko-dotrina?set\\_language=eu](http://www.zumalakarregimuseoa.eus/eu/ekintzak-eta-zerbitzuak/ikerketa-eta-dokumentazioa/argitalpen-digitalak/1812ko-dotrina?set_language=eu)

<sup>11</sup> Ikus Elozegi (2002) Eranskinak, 2.6.5. Lore-jokoetako testuetako hitz juridiko-administratiboak.

<sup>12</sup> Ikus Pagola (2005).

<sup>13</sup> Azterkizun daude *Eguna* egunkarian eta *Ereintza* aldizkarian 1937 urtean argitaratutako artikuluetako gaiak eta terminologia (Elozegi, 2002).

daitekeenez». Baina nabarmena da terminologia<sup>14</sup> garai hartako joera puristaren mende dagoela: *uri sari-artzalle* ‘becario’, *uri-sari* ‘beca’, *landola* ‘dependencia’, *Zaingoa* ‘departamento’, *oroagindu* ‘decreto’, *Goi Banakaritza* ‘Administración Central’, *erki-banakaritza* ‘administración provincial’, *lanari* ‘funcionario’, *latziñaldari* ‘notario’, *Epailletza argibidelari* ‘Juzgado de Instrucción’, *txindi* ‘dinero metálico’, ‘público’ esateko *herri-*, hitz elkartuko lehen osagai... Erabiltzen diren terminoak ere ez dira beti osaeraz egokiak: *ibilkor zubi* (adjektiboa eta izena, alderantzizko hurrenkera behar lukeena), adberbio + izen egiturako terminoak (*ia-injeniero* ‘perito’, *ia-osagille* ‘practicante’, *ia diru artu-emangarri* ‘semibancable’<sup>15</sup>). Beste askotan, ostera, guztiz egokiak dira osaeraz: *diru-etxeen alkartze eta banatze arazo*, *Diru-etxeak arautzeari buruz emandako Legea*, *Diru-Zaintza Araudia*, *Etixerik gabeko lurren zergari*, *zerga bereziei*, *eta plus valiarri dagokien Araudia*, *zergaren oñarri*. Edo bete-betean gaur erabiltzen direnak ez izanda ere, oso gertukoak dira: *erantzina* ‘anexos’.

Badira bi ezaugarri azpimarratzekoak iruditzen zaizkigunak, biak ere gaurko terminologian ikus daitezkeenak: batetik, terminologiaren aldakortasuna eta bestetik, eremu askotako terminoetan ohikoa dena, alegia unitate konplexuen (sintagma egiturako unitateen) ehunekoa euskal segmentu baliokideetan (goraxeago emandako adibideez gain, *lan eta alogera gabe uzteko zigor*, *gai-xo-susmopean dagoen abel-gorri*, *diruaz ber-jabetu al izateko argibide* edo *legez biztanleturik aurkitu* ‘tener residencia legal’). Aldakortasunaren adibide (nabarmenenak) dira: ‘contratista’ *lanartulari*, *itunbenlari*, *lanartuari*, *lan-artzalle*, *lanartuzale*, *lanartutzeale*, *lanartzelari*, *lanartzale*, *lanartzalle*, *lan-artulari*; ‘sanción’ *ezitu-bear*, *jipoi*, *zigor*, *zigorkada*, *zigortze*, *nekaltze*, *neke* edo ‘Junta provincial de Protección de Menores, Junta provincial de Protección a la infancia’ *Bizkaiko Aur Babes-etxea*, *Aur laguntza Erki-Batzordea*, *Aur Laguntzalle Erki-Batzordea*, *Gaztetxoan Erki Zainketa-Bazkuna*, *Aurrendako Babes Erki-Batzordea*, *Erkietako Aurrendako Babes Batzordea*, *Gaztetxoan Babeserako Erki-Batzordea*, *Aurraren Laguntasun Erki-Batzordea*. Guztiz ulergarria da aldakortasun hori jakinik zein egoeratan egin zen ahalegin hura (ikus goraxeago Sarriegiren hitzak). Gaur asko murriztu da aldakortasun hori, baina badira oraindik ere sinonimoak: *UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi Juridikoan*, esaterako, ‘ámbito de la acción protectora’ *babes-jardunaren hedadura*, *babes-jardunaren irismen*; ‘albacea’ *albazea*, *testamentu-betearazle*; ‘audiencia previa al juicio’ *epaiketa aurreko entzunaldi*, *judizio aurreko entzunaldi* edo ‘auditoría’ *auditoretza*, *auditoria*, *ikuskaritza*. Terminologiaren teoria berrietan onartzen da komunikazio espezializatuan erabiltzen den terminologia errealean aldakortasuna gertatzen dela<sup>16</sup>; areago, erdal termino batek adiera bat baino gehiago izan dezake eta, horrenbestez, ordain bat baino gehiago eska dezake (ikus azken puntuan Alvarez Mingoren aipamena).

Ezin dugu ahaztu, bestalde, euskaltzainen artean ere zenbaterainoko lekua zuen maileguren auziak. Agerikoak ziren Altuberen eta Azkueren iritzi kontrajarriak. Gerra ondoren ere iraungo du eztabaida horrek (Azkarate, 1997).

Atal honen laburpen modura esan dezakegu Elosegik dioena oso ondo egokitzen zaiola XIX. mendeko hizkera juridikoari eta XX. mendearen hasierakoari: «Jakina da zein pisu handia izan duten Hegoaldeko literatura osoan, baita itzulpengintza juridikoan ere, euskararen zuzentasunari

<sup>14</sup> IVAPek argitaratu zuen 1997an *Euzkadi’ko Agintaritzaren Egunerokoaren* 252 aleetako hitz-bilduma. Lexiko teknikoa edo berezitua ez ezik, lexiko arrunta ere jasotzen duena.

<sup>15</sup> Semantikaren ikuspegitik ere hain bitxia den *ia* adberbioaz gain, euskaraz ezinezkoa den *diru artu-emangarri* adjektibo elkartu sintetiko itxurakoa.

<sup>16</sup> Ikus, esaterako, Freixáren lanak, bereziki (2002, 2005, 2013): autoaldakortasuna (autore beraren testu bakarrean edo testu batean baino gehiagotan gertatzen dena) / heteroaldakortasuna (hainbat autoreren testuetan gertatzen dena. Edo Lorente (2013).

buruzko aurreiritziek. Jakina denez, hainbat hizkuntza baliabide, bai lexiko, bai morfosintaktiko, bai estilistiko, debeku izan dira garai batzuetan. Horrela, esan daiteke Iparraldeko tradizioa ez zela kontuan hartzen —hartzekotan, eredu negatibo gisa— euskarak 1936ko urrian ofizialtasuna eskuratzeko duen unean» (Elosegi, 2002: 215).

## 5. 1980tik aurrerakoak

1978an *Euskal Kontseilu Nagusia* sortu zenerako, euskara batuak finkatuak zituen morfologiako funtsezko kontuak. Baina oraindik bizirik zeuden gerraurreko irizpide garbizaleak. Eta behala hasi ziren tirabirak 1936ko ereduari jarraitu nahi ziotenen eta Euskaltzaindiaren gidaritzapean aurrera zihoan aldaera estandarren aldekoen artekoak. Eztabaidak bizi-bizirik jarraitu zuen eta eztabaida horretako hainbat alderdi agerian geratu ziren HAEE/IVAPek urte haietan antolatu zituen administrazioko hizkeraren inguruko jardunaldietan<sup>17</sup>. Berasategik (1989) bi eredu bereizten ditu garai haietan: 1936-37 garaiko tradizioari atxikitzen zaiona bata, hizkuntza modernizatu eta garai berrietara egokitu nahi zuena bestea. Tradizioari atxikizaleen jardunak aurreko garaiko hizkeraren ezaugarri berberak ditu: garbizalea da, mailegutzatik ihes egin nahi du; garbizaletasunak, euskal hiztunen ohiko moldeetatik urruntzera daramatza; maiz jotzen du hitz-elkarketara eta postposizio-atzizkiak metatzera; euskal testuari autonomia handiagoa eman nahi diete. Hizkuntza modernizatzearen aldekoek, berriz, espainolezko terminologiaren zehaztasunak eta konnotazioak gorde nahi dituztenez, erraz onartzen dituzte maileguak; inguruko alorretan garatzen ari den hizkerarekin (irakaskuntzakoarekin edo komunikabideetakoarekin) bat datorren moldetik joan nahi dute; maileguz beteriko hiri-hizkerara hurbildu nahi dute. Aurreko tradizioa ez ezagutzeak ere ez zion inolako mesederik egin hasierako urte haietako jardunari: «Orduko ez jakitearen kariaz edo, hobeto esanda, falta zen ikerketaren ondorioz, aurki dezakegu orduko testuetan euskaraz berez zeuden terminoak gaztelaniara itzultzen zirela, eta, horiek berriro euskarara ematean, euskaraz inolako tradiziorik gabeko ordainak asmatu zirela, adibidez «herrialde» > «territorio histórico» > «kondaira lurralde», «lurralde historiko», «herrialde historiko» eta «historia lurralde». Orduko joera biek aukeran zuten horietako bat edo beste, baina ez zuten jatorrizkoa proposatu» (Lobera 2005: 116). Garai hartatik geratu zaigu *Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea* izena edo 'público' erdal erreferentzia-adjektiboaren ordain *herri* ematea (askotan behintzat): *herri-ikastetxeak*, *herri-lan(ak)*, *herri-zerbitzu* (nahiz *publiko* mailegua nagusitu).

Ondorengo urteetan, euskara batuaren oinarriak finkatzen diren heinean, testu juridiko gehien-gehienak haiek jarraituz moldatzen dira. Beste arloetan bezala, euskara batuarekin batera, lexikoan ere aldaketa nabarmenak ageri dira (Elosegi, 2002: 220). Ekarpenean handia egin du Terminologia Batzordeak, han ezarritako irizpideek eta han bildu den lantaldearen jardunak (<https://www.euskadi.eus/euskararen-corpus-terminologia/web01-a2corpus/eu/>). Bestalde, HAEE/IVAPek eginitako lana aitortu behar da, bai terminologian eta bai hizkera argi eta ulergarriaren alorrean; administrazioaren alorretarako prosa eredu estandar zaindua lantzeko argitaratutako lanak, bereziki *Estilo liburua*, *Administrazio Euskaraz* aldizkaria, *Euskara Juridikoaren Ataria*, *IUSPLAZA Zuzenbidearen webgunea euskaraz* edo *Legeak-Leyes bilduma*<sup>18</sup>. Itzulpenek oraindik ere pisu handia

<sup>17</sup> Bi daude argitaratuak, 1982koa eta 1989koa. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Administración Pública (1982): *Euskara eta administrazioari buruzko I. Ihardunaldiak*, HAEE/IVAP; Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Administración Pública (1989): *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*. HAEE/IVAP. Ikus Elosegi (2002: 274-276).

<sup>18</sup> <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/legeak-leyes-bilduma>

izan arren, badira euskaraz sortzen diren testuak ere. *Eleria* aldizkariak (1996-2013)<sup>19</sup> aurrerabide nabarmena ekarri zuen euskara hutseko lanak argitaratzen ziren neurrian, komunikazio-funtzioa zaindu behar zuelako. Hamazazpi urtean zehar unibertsitateko irakasleen eta IVAPeko teknikarien artikulua eta lanak jaso zituen. Gaur merezi du *Zuzenbidea ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria* aipatzea. 2014an sortua, *Zuzenbideko gradu* aritzeko eta *zuzenbidea ikasteko* erabiltzen diren ikasmaterialak argitaratzea du helburu, bai eta ikasleen ekarpenak eta ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen berri juridikoak ere. Eta, nola ez, unibertsitateetan sortu diren irakaskuntzarako testuliburuak (EHUkoak <https://ikasmaterialak.ehu.eus/zuzenbidea>, edo Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide alorreko bilduma). Ibilbide horri esker egin ahal izan da Zuzenbide Corpora, gaur egun 696 dokumentuz (lege-testuak eta testu akademikoak) eta 7,9 milioi testu-hitzez osatua, eta Euskara Institutuan kontsultagai dagoena.

Horrek guztiak errotik aldatu du terminologiaren egoera. Orainsu arte hiztegien bidez sortzen ziren terminoak; hiztegiek egiten zituzten proposamenak zein termino erabili erdarazkoaren ordain, bai euskara batuaren aurreko aldian eta bai ondoren ere. Lantalde baten edo pertsona jakin baten proposamenak jasotzen ziren (terminologia) hiztegietan. Gaur, aldiz, baditugu euskaraz sortutako testuak, corpusak, horiek aztertu eta hortik terminoak erauzteko: corpus orokorrak (*Egungo Testuen corpora*), nahiz corpus berezituak (*Zuzenbideko corpora*)<sup>20</sup>, Horrek eman digu aukera terminologia planifikatutik terminologia naturalerako pausoa emateko.<sup>21</sup>

Ez da dudarik XXI. mendearen lehen laurdenera iristen ari garenean, lege-hizkeraren eta, oro har, zuzenbideko eta administrazioko hizkeraren egoerak ez duela zerikusirik orain dela mende batekoarekin. Oro har, esan daiteke euskara estandarrek berak egin duen ibilbidea jarraitu duela; ibilbide hori, Mitxelenak (1968) Arantzazun esandakoaren arabera egin dela esan dezakegu: «Euskaldunok ez dugu, herri gaitan izan ezik, kultura berezirik: mendeko gera, kultura-barruti horretan bizi gera. Ezin izan dezakegu, beraz, askatasunik hizkuntzaren aldetik: askatasun hori erdiets zitekean VIIIgarren mendean, XIIIgarrenean eta XVIgarrenean ere, bai oraindik, agian, ez, ordea, oraingoan eta are gutxiago hurrengoan. Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekorian daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik. (...) «Euskal-usaia», «euskal-kutsua» deritzatena ongi dago, noski, euskal-gaiak darabiltzagunean, Euskal-herriko mendi-giroa irakurleari sumarazi nahi diogunean. Hortik kanpora, ordea, badirudi ur garbiaren pare behar duela izan behar bezalako prosak: inongo usairik, kolorerik eta zaporerik gabea. Euskal-kutsua badario, barren-muinetarik dario, ez axaleko edergarrietarik».

## 6. Zenbait gogoeta: euskarazko lege-hizkeraren erronkak eta aurrera joateko oinarria

Gai horretaz arduratu direnek ia aho batez aitortu dute itzulpenaren eskutik etorri dela lege-hizkera eta, oro har, administrazioko hizkera. Terminologian ere bada oraindik zer gogoeta egin. Beraz, bi puntu horien inguruan harilduko ditugu aurrera begirako gogoetak, beste idazle batzuek euskarri hartuta.

---

<sup>19</sup> Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria, <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/argitalpenak/eleria-euskal-herriko-legelarien-aldizkaria/bi-109/>

<sup>20</sup> <https://www.ehu.eus/eu/web/eins>

<sup>21</sup> Alberdi X. eta Salaburu, P. (arg.) (2013): *Terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*. Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak V <https://www.ehu.eus/eu/web/eins/jardunaldiak-2013>



*Itzulpenez*

Ingurumari zabalagoa eman nahi diogu itzulpenari buruzko gogoetari, azken batean itzulpen lanaren gaineko gogoeta orokorrek berdin-berdin balio dezaketelako esparru zehatzagoetarako ere; eta, askotan, gainera, argi egin dezakete zein bide hautatu. Lege-hizkera egokitzeko eginkizunean itzulpena izan dugu lanabes eta bide ia bakarra. Hori, nekearen nekez ikasi dugu, ez da, berez, ez ona ez txarra. Are gehiago P. Esterházyk diosku, hungarieraren kasuan, itzulitako literaturak oso tradizio sendoa eta oparoa izan duela beti, bere ustez herri txikiak bere buruarekiko duten begirunearen bereizgarri dena<sup>22</sup>. Baina eskarmentu handiko —eta kalitate literario goreneko— idazleek badakite itzultzeak zer zailtasun eta arrisku dituen. Bi adibide hona ekartzeagatik: Jorge Luis Borgesek diosku ez dagoela bestelako arazorik letrek —idazkuntzak— hain bere-berezko duenik, eta haien misterio apalarekin lotuta dagoenik, itzulpenak proposatzen duena baino<sup>23</sup>. Eta, gurean, Koldo Mitxelenak ohartarazi zigun «itzulpenak irristakorak eta zailak direnez gero»<sup>24</sup> trebezia berezia eskatzen dutela; bereziki, uste dugu, hizkuntza maisuki menderatzea eta gaitasuna izatea ez-titasun guztiarekin erabiltzeko.

Hizkuntza bakoitzak badu bere unibertsoa, bere berezitasunak, bere-berezkoak diren bideak. Axular izan dugu gurean, duda gabe, itzultzailerik trebeenetakoa. Anjel Lertxundik<sup>25</sup> berriki ekarri dizkigu Axularrek erabiltzen zituen metodoak; era berean, hitzez-hitzezko itzulpena eta, gehienetan, horrekin batera, jarraian, itzulingurukoa, sarritan sinonimo ugari erabiltzearen bidez. Axularrek berak, gardentasun guztiarekin, biluzten du bere burua: «...eztitut bethiere... hitzez hitz euscarara bihurtzen. Ceren euscarara eta bertce hitzcuntçac different baitira. Ordea ezta ez handic seguitcen gaiztoago dela euscarara. Aitcitic badirudi ecen bertce hitzcuntça eta lengoaya comun guztiac bata bertcearequin nahasiac direla, Baiña euscarara bere lehenbicico hastean eta garbitasunean dagoela»<sup>26</sup>. Ez da dudarik, neurri batean behintzat, azken xehetasunak, euskararen garbitasunari buruzkoak, beste xehetasun eta ñabarduraren bat behar duela. Baina Axularrek erakusten digu nola egokitu euskararen ezaugarrietara euskarara ekarri behar dugun hori. Mitxelenaren hitz hauetan ere aurki dezakegu Axularren mezuaren oihartzuna; eta honela uler dezakegu mezu hori: euskarazko lege-hizkera egokitzean ez dugu hizkuntza berria asmatu behar, euskara egina baitago, beharrak izan arren: «Euskarak, egia esan, badu beharrik; zertxobait leuntzeko, hornitzeko eta egokitzeko premia ederrean dagoela guziok dakigu. Baina egin beharrik ez, aspaldidanik egin-egina baitago. Euskara egiten —edo egin ustez desegiten— hasi baino hobe genuke euskaldunok euskara ongi ikasten hasi» (Mitxelena, 1961)<sup>27</sup>.

Anjel Lertxundik behin eta berriro errepikatu du itzulpen literarioak emaitza oparoak ekarri dizkiola gure hizkuntza literarioari. Itzultzaile benetan trebeak sortu baitira gurean azken hamarkadetan, agian hizkuntzaren inguruan izan dugun emaitzarik aberatsenetakoa. Maisu izan dira kanpoko hizkuntzetako bideak gure hizkuntzaren berezko ezaugarrietan egoki txertatzen. Hizkuntza aberastu dute hizkuntza bortxatu gabe.

<sup>22</sup> Esterházy, Peter, Dezső Kosztolányi-ren *Alondra* nobelari egindako hitzaurrean, Ediciones B, Barcelona, 2002, 10. or.

<sup>23</sup> Borges, Jorge Luis: «Las versiones homéricas», *Discusión, Obras Completas*, I, Círculo de Lectores, Barcelona, 1992, 267. or.

<sup>24</sup> Mitxelena, K. (1965) EGAN, Manuel de Lekuonaren *Literatura oral vascoren argitalpen berriaz* [*Euskal idazlan guztiak*, III, 149. or.]

<sup>25</sup> Lertxundi, A. (2019): *Itzuliz usu begiak*, Alberdania.

<sup>26</sup> Axular, P.: *Gero*, 19-20. or.

<sup>27</sup> Mitxelena, K. (1956) EGAN Barandiaran'dar Salbadorren *Ilias'enaz*, Iliadaren euskarazko itzulpenaz [*Euskal idazlan guztiak*, II, 69. or.]

Esan da gurean sortu den lege-hizkera edo hizkera burokratikoa, nahi badugu, gaztelaniazko hizkera burokratikoaren maizter dela, *jerga* horrek dituen gaitz guztiak gurera ekarri ditugula (A. Lertxundi, *Eskarmentuaren paperak zein Itzuliz usu begiak* saiakeretan). «Hizkera burokratikoak gaztelania du, eta ez euskara, iturri eta ispilu, eta itzulpena du oinarri» diosku azken saia-keran (2019, 110). Joseba Lozanok (1997) ere aipatu ditu euskara juridikoaren ajeak eta urratuak —literaturaren eta hizkera juridikoaren arteko eremutik, esango genuke—. Erdararen morrontzatik urrundu, erdara «jaso» horren mezuak deskodetu, testuan ezkutatzen diren nagusienak zerrendan jarri, ideia horiek euskarazko oinarritzko esaldi bihurtu, eta esaldiok euskarazko diskurtso modura egituratu, euskarak berak gure esku jartzen dituen tresnen laguntzaz: horiexek Lozanoren errezeta- ren osagaiak.

Arazoa ez da, beraz, itzulpena oinarri izatea. Bide gehiagorik ez genuen eskura. Arazoa da gaztelania izatea, eta ez euskara, ez bakarrik iturri —hori saihetsezina baita—, baizik eta ispilu bakarra. Eta, zilegi bekigu berriro aipatzea legelarien —eta burokraten— harrokeria, uste baitute hala izan behar dela eta ez dela, horrekin batera, bestelako ispiluren bila ibili beharrik. Batzuen eta besteen artean egokitu nahi izan dute lege-hizkera. Askok pentsatzen zuten ez genuela hizkuntza- larien beharrik; ez eta euskara literarioa ederto menderatzen duten idazleen beharrik ere. Zuzen- bide Fakultatean, aspalditik, ohikoa da entzutea «ba gu, juristok, legelariok, horrela esaten dugu». Maiteminduta daude haiek beraiek sortu duten hizkerarekin, lexikoarekin, bereziki.

Kontuan izan behar dugu mota desberdineko arazoei egin behar diegula aurre; eta batzuen eta besteen ezaugarriak ez direla mota —eta munta— bere-berekoak. Kepa Altonagak (2015, 77) arazoa egoki ezartzen du esaten duenean «bertsio [beraz, itzulpen] *onak* eta *fidelak* behar ditu- gu(la) euskaraz» (nabarmentzea gurea da). Bereziki inportanteak dira testu juridikoetan Altona- gak eskatutako bi betebeharrak. Ez dago inolako dudarik testu juridiko baten euskal ordainak, al- dez aurretik eta ezinbestean, jatorrizkoarekin erabat *fidela* izan behar duela erabiltzaile juridikoak baliagarri —erabilgarri— izango badu. Baina, era berean, *ona* izan beharko luke hizkuntzaren al- detik ere. Berehala ikusiko dugun gisa, gure hizkuntzaren ezaugarri —ahulezia— soziolinguis- tiko eta ez-soziolinguistiko bereziengatik, lege-hizkuntzak —hizkuntza burokratikoak— eragin berezia du hiztunengan, erabat kutsakorra izaten ari dena, hizkuntza jasoaren eredu gisa hartua izan den neurrian. Beraz, gurean arazoa ez da bakarrik lege-hizkera adituen *jerga* bihurtzeko arriskua izatea, baizik eta, orokorrean, hizkera burokratikoa euskara jasoaren eredu bihurtuta, hiztunen *jerga* —are gehiago, hiztun ‘hezi’ena— bihurtzeko arriskua izatea ...dagoeneko bihurtu ez bada.

### Terminologiaz

Asko izan dira aldarrikatu dutenak gaztelaniazko lexiko eta hizkera juridikoaren pareko —is- pilu— izango zen lege-hizkera behar genuela euskaraz. Eta halakoa sortu dute. Gaitz sendoa dugu lege-hizkeran gaztelaniaren ispilu diren ordain zuzenak sortzea. Askotan esaten dute lege-anto- lamendu bakoitza mundu guztiz berezia dela eta, beraz, Espainiako lege-antolamendua dela era- bili behar duguna, halako legeek ezarri dutena ekarri behar dugula euskarara. Hori egia da neurri nahiko txiki batean. Gutxitan dira beste sistemetan inolako ordainik ez duten «berezitasunak». Ho- rrek ez du arazorik sortzen; salbuespenak diren neurrian, salbuespen arrotzenek ere —hizkuntza- ren ikuspegitik— ez diote kalterik egingo hizkuntzari. Baina zerk eragozten digu gurearekin antz handiago duten hizkuntzek gauzak adierazteko eta lexikoa sortzeko erabiltzen dituzten bideak az- tertzea eta kontuan izatea? Ez dira onuragarriagoak guretzat ingelesak edo alemanak dituzten

erak? Ingelesean nabaria da hizkera juridikoan hitz arrunten erabilera, hitzaren eremu semantikoa zabalduta. Berdin erabiltzen da *claim* hitza hitzun arrunten arteko solasetan eta juristen artekoetan. Baina esangura ez da bera batean eta bestean.

Bestelakoa da egoera, zientziaren —edo zientzien— eremuan gertatzen den gisa, hitz edo termino zientifikoak erabat hedatuta daudenean. Ezin da dudarik izan halako kasuetan hedatutako lexikoa gureganatu behar dugula, inolako mugarik gabe, esaterako Altonagak aldarrikatzen duen gisa. Ez du ez hankarik eta ez bururik hori aldatu nahian ibiltzeak, purismoaren bidetik euskal kutsu handiago duten hitzen bila ibili beharrak. Baina Zuzenbidean lexikoa, gehienetan, ez da nazioartekoa, kasu batzuetan hala izanik ere. Gehienetan, hitz arruntak hartzen ditu oinarri eta iturri. Beraz, hizkera arrunta dute iturburu nagusia. Euskararen ere, hizkera arrunta iturburu duela sortu behar dugu lege-hizkera. Eta, horregatik, tentuz ibili behar dugu, euskara egokitzean gure hizkuntza jo duten gaitz guztiez ohartuta, lege-hizkera ez dadila gerta izurriteak jota.

Terminologia auzietara heldu garelarik, gogoan izan behar dugu zein helburu duten gurean, batez ere, terminologia lanek. Izan ere, hizkuntza gutxituen kasuan, hizkuntza plangintzaren helburua nagusitzen da; hizkuntza plangintzari, hizkuntzaren normalizazioari loturik egon ohi dira terminologia hizkuntza horretara egokitzeko ahaleginak (Cabr  1992). Leku berezia hartzen dute horrelako lanek estandarizazioaren azken fasean, *elaborazio* aldian, nahitaezkoa baita lan hori hizkuntza edozein arlotan erabilgarri egiteko. Hala izan da eta da euskararen kasuan ere. Ikuspegi horretatik, terminoak komunikaziorako elementuak baino ez dira, balio espezializatuko unitate linguistikoak, baina betiere hizkuntza jakin bateko arau eta erregelak oinarri dituztenak<sup>28</sup>. Beste hitz batzuetan esanda, hitz berriak sortzeko (edo maileguz hartuak egokitzeko) hizkuntza batek dituen arauak eta erregelak bete behar dira terminoak sortzerakoan ere. Euskarari dagokionez, Euskaltzaindiaren Hiztegia izango da oinarri, batetik, hiztegi horretan baliatutako irizpideak; eta, bestetik, euskaraz hitz eratorriak eta hitz elkartuak sortzeko bideak. Hizkera berezituko hitzak sortzeak ez ditu eskubiderik ematen lexiko orokorreko hitzen arauak hausteko.

Baina nola jakin zein bide hautatu? Mitxelenak Arantzazuko txostenean eta beste idatzi batzuetan esandakoek argi egin dezakete kontu honetan. Bi ideia azpimarratu zituen Mitxelenak (1968): «Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, beste-rengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira eta nork taxutuko du alde aurretik bakoitzaren neurria eta mugak? Euskaltzaindiak behinola esanak honetarako bakarrik balio zuen: ez dagoela hitz berririk sortu beharrik adierazteko euskal hitz, zahar-jatorrak, erdaratikakoak direlakoak, baztertzeko asmoz». Eta bigarren gogoeta, «Euskal hitzak sortzean, eta nornahik sortzen ditu mintzatzean, gogoan eduki dezagun beti, premiaz gainera, gure hizkuntzaren moldea, beti izan baitugu horretarako erraztasuna, hitz-elkartzearen bitartez, batez ere. Noraezekoa du hizkuntzak sor-iturri horrek bizirik iraun dezan, bere izatean iraungo baldin badu».

Egia da, lege-hizkeraren alorrean ere sarri hautatu ditugula euskaren moldeko baliabideak, lexiko orokorrean egin den bezala: «Lexikoaren eguneratzeak hautamen bat egitera behartzen gintuen beste hizkuntzen morrontzaren eta euskarak berak ematen zizkigun aukeren artean. Zorionez, asko tiratu dugu bigarren aukeratik, euskara bera izan dugu iturri nagusia. Bada, ordea, tamalik ere: ez dugu beti asmatu»<sup>29</sup>.

<sup>28</sup> Ikus artikulu-sorta honetan Alberdiren lana, «UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi Juridikoa: hiztegi-sarreraren egitura eta definizioen idazkera».

<sup>29</sup> Lertxundi, A. (2009): *Eskarmentuaren paperak*, Alberdania.

Beti izaten da tirabira barrutik sortutako eta maileguz hartutako hitzen eta terminoen artean. XIX. eta XX. mendearen zatirik handienean maileguetatik ihesi ibili ondoren, badirudi eskuzabalegi jokatu dugula maileguak hartzean. Hala iradokitzen digute Mitxelenaren (1985) hitz hauek: «mailegatzeko eskubidea ezker-eskuin eta zuzen-bihurri mugarik gabe geureganatua dugunez gero, ez ote dugu zilegi, emendailuz bezala, geure baitarik zer-edo-zer sortzea?»<sup>30</sup>. Baina ezin gara purismoaren atzaparretan erori: «Genetikari buruzko unibertitate liburu batean ez dela, kasu, «herentzia» hitza behin ere azaltzen. «Ondoretasuna» erabiltzen dela ordez. Betiko purismo antzuaren ildo da hori. Eta ez da kasu bakana euskal idazkietan: lirdinga bat bezala erantsi zaio joera purista euskara idatziari.» (Atxaga, B. 2015). Irtenbidea ez da erraza, erdibidea aurkitzea ez da inoiz eta inon erraza. 1980ko hamarkadaren hasieran, hizkera juridikoaren mundutik bertatik egindako gogoetek lagun dezakete erdibide hori aurkitzen. Alor horretako euskarazko testuak (eta, esango genuke, gainerako alorretakoak berdin) baliozko eta eraginkorrak izatea nahi badugu, eta ez erabilerarik gabeko apaindura hutsak: a) edukiari begirunea gorde behar zaio; b) ezin ditugu setaz eta mendetasunez erdaratik maileguak hartu; c) kontzeptuak zehazki emateak ezin du ekarri erdaraz hitz bat erabiltzen den bakoitzean euskaraz ere hitz bat eta bera erabiltzea; gaztelaniazko terminoaren balio semantikoa aztertu behar da, euskal ordain egokia hautatzeko; d) mugak jartzea komeni da maileguak hartzeko; muga hori hizkuntza bera da, jatorrizko testua aztertu eta ulertu ondoren, beste biderik aurkitzen ez dugunean, orduan jo mailegura (Alvarez Mingo, 1982). Azken batean gorago jaso dugun Lozanoren (1997) irtenbide bera, Mitxelenaren hitzekin oso bat datorrena.

### *Termino eta egitura jakin batzuez*

Artikulu honen lehen partean 1980 arteko hizkeraren garbizaletasunaz jardun dugu. Orain jaso ditugun gogoeta orokor horien ondoren, beha diezaiegun azken urteetako hizkera juridikoan erabili diren zenbait hitzi. Batzuek arrakasta izan dute; beste batzuk hor dabilta, baina, oraingoz, ez dute onarpen ofizialik.

- *Jarauntsi* ‘ondarea’. Ez da termino arrotza gaurko testuetan, baina Olabidek Bibliaren itzulpenean erabiltzeak Mitxelenaren (1959) haserrea piztu zuen: «...[halako hitzak] daki-danez, *hápax legómena* [literaturan behin bakarrik agertu direnak] dira. 1556ko *Refranes y sentencias*-en bakarrik ageri direnak. Ba ote zuten horrelako zaharren zaharrez aspaldi usteldu ziren hitzek oraingo liburu batean sartzeko eskubiderik? Ez, ene ustez, ezinbestean izan ezik, eta hemen ezinbestetik ez zegoela bistan dago»<sup>31</sup>.
- *Lerrun*. Lekukotasun ugari ditu *Egungo Testuen Corpusean* (ETC), eta agerraldi multzoa *Zuzenbide Corpusean* ere. Baina *Orotariko Euskal Hiztegia* jotzen badugu, ikusiko dugu Azkueren irakurketa okerraren ondorio dela. *Lerrunkan* (Pouvreauk dakarren forma), *lerrunean* zela uste izan zuen. Hortik sortu zuen berak *lerrun*, Pouvrearen *lerrunka* bazter utzita.

---

<sup>30</sup> Mitxelena, Koldo (1985): «Esaera zahar baten bigarren agerraldia» [*Euskal idazlan guztiak*, VI, Euskal Editoreen Elkar-  
tea, 186. or.].

<sup>31</sup> Mitxelena, K. (1959): «Itun Zar eta Berria. Olabide'tar Erraimun, S.J.», [*Euskal idazlan guztiak*, II, Euskal Editoreen El-  
kartea, 112. or. eh.].

- *Egikaritu, egikaritza*. Testuetan lekukotasun handirik ez duen Larramendiren neologismo bat oinarri hartuta, indar handia hartu dute, hurrenez hurren, ‘ejercer, ejercitar’ eta ‘ejecución’ adieraz testu juridikoetan.
- *Tarteratu*. Erdara ispilu harturik sortu den adibide gordinen adibidetzat hartuko dugu aditz hau, lege-testuetan ez, baina testu akademikoetan aurki dezakeguna. Euskarazko esapidea kendu eta gaztelaniaren morrontzako kalkoa sortu da, inolako beharrik gabe. *Errekurtsua jarri, helegitea jarri* edo *aurkeztu*, baditugu euskal predikatuak kalkora jo beharrik gabe.
- Zaila da hemen ere erdibidea, baina lege-testuetako eta testu akademikoetako terminoak moldatzean, on da Mitxelenaren (1959, 114) hitzak begien aurrean izatea: «Ez dago ezer txarrik [euskalki guztietatik hitzak hartzean], berriz ere, neurrian eginez gero. [Baina] (...) ez du hitz batek beste edozeinek adinbat esku (...) maizegi [hartzen ohi da] Euskal Herriko xokorik galduenetan jaso izan diren hitzak, baita aspaldidanik nonahi ahaztu zirenak ere, literaturan nahiz herri hizkuntzan zabalduago eta ezagunagoak direnen kaltetan». Izan ere, batzuetan badirudi lege-hizkera moldatzean badela joera tradizio urriena duten terminoak hautatzeko; arrotzenak diruditen aukerak hartzeko, euskal hiztun ikasiari zailen egokitzen zaizkienak. Nolanahi ere, hitz horiek sartu dira eta bidea egin dute gaurko hizkeran. Beude, beraz, bakean.
- *Erdal ‘izen + erreferentzia-adjektibo’ egiturako sintagmez*. Hitz elkartuen osaera eta idazkerari buruzko araua eman zuenean, Euskaltzaindiak (25. araua) ohartarazi zigun izen-elkarketa dela euskaraz tradizioko bidea mota horretako sintagmen ordainak emateko, izena izaten delako adjektibo horien oinarri, nahiz batzuetan latinetik gertuagoko forman ageri adjektiboa (*mano/manual, leche/lechero, lácteo, economía/económico*, eta abar). «Bide honi eutsi beharko litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldaera arrotzen mendekoegi bihurtu nahi ez badugu» zioen Akademiak. Garrantzi handiko auzia da, ugariak baitira erreferentzia-adjektibodun sintagmak terminologian oro har, bai eta lege-hizkeran nahiz administraziokoan. Garai garbizaleetan ihes egin zieten *público* edo *jurídico* zuten erdal sintagmen ordainetan *publiko* edo *juridiko* maileguak hartzeari. Baina egia da zenbat eta urrunago egon oinarriko izena eta adjektiboa, zailagoa gertatzen dela izen elkartua erabiltzea. *Normal* adjektiboak, adibidez, galdua du *norma* izenarekiko lotura semantiko. Nolanahi ere, asko ikertu da gai hau gure artean Euskaltzaindiak 1992ko araua eman ondoren. Corpusetako datuen argitan, badirudi erraz lerratzen garela azken urteetan erdal egitura mailegatzerara, berez horretarako beharrik ez dugunean ere (Azkarate, 2019). *Konstituzio Auzitegi* eta *Herri Administrazio* defendatu zituen sutsuki Alvarez Mingok (1982). Hala erabiltzen dira gaur ere. Baina ‘*konstituzio + izen*’ edo ‘*herri + izen*’ egituren ondoan bizi dira, etxe erosoetan, *printzipio konstituzional, oinarri konstituzional* edo *zor publiko, jabari publiko, segurtasun publiko, administrazio publiko* eta abar. Beste batzuetan, bi formak eskaintzen dira: *atestatu polizial, polizia-atestatu*. Izen elkartuaren aldeko hautuak ere ez dira falta: *administrazio-espeditente, administrazio-prozedura*, baina *organo administratibo*. Ertz ugari ditu auzi honek ere, orain arteko guztiek bezala. Baina aurreko puntuak bezala, gogoetatxo bat ekarri nahi izan dugu lerro hauek irakurtzen dituenari baliagarri izango zaiolakoan.

Eta, amaiera gisa, apokalipsia hurbil dagoela pentsaraz dezaketen hitzak eta aipamenak ekarri ditugula hona usteko du norbaitek, baina ez da hori izan, inola ere, gure asmoa. Pizgarri izan nahi dute, ikaragarri baino areago, azken parte honetako gogoeta guztiek. Pizgarri eta oroigarri nolako erantzukizuna dugun administrazio- eta lege-hizkera, modu batean edo bestean, esku artean du-

gunok; oroigarri, hizkuntzalariek eta adituek eskuz esku egin behar dutela bidea; oroigarri, administrazio- eta lege-hizkera ez dela adituei —administrazioko teknikariei edo legelariei— bakarrik dagokien arazoa, gauzak nola joan diren ikusita, hizkuntzaren osasuna bera kolokan jartzen duen hizkera baita.

### Erreferentzia bibliografikoak

- Altonaga, K. (2015): *Back to Leizarraga*, Pamiela.
- Alvarez Mingo, P. (1982): «E.H.A.A.ko itzulpen-lana», *Revista Vasca de Administración Pública-Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria* 4, 121-142.
- Atxaga, B. (2015): Adierazpenak Felix Ibargutxiren «Zeinismoa dela eta» artikuluan, *Diario Vascon*, 2015.05.23 argitaratuta, Kepa Altonagaren *Back to Leizarraga* liburua dela-eta.
- Azkarate, M. (1997): «Hiztegi Batua», *Federiko Krutwig-i omenaldia*, Iker-10, Bilbo: Euskaltzaindia, 79-104.
- Azkarate, M. (2015): «Euskal lexikografia: kodetzetik garatzera», Fernandez B. eta P. Salaburu (arg.) *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 119-136.
- Azkarate, M. (2019): «Adjektibo erreferentzial ala erreferentzi-adjektibo? Euskaltzaindiaren gomendio baten hariari tiraka», Epelde, I. eta O. Jauregi, *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 99-113.
- Azkarate, M. eta Lindemann, D. (2018): «Basque Lexicography and Purism», *International Journal of Lexicography*, Volume 31, Issue 2, 132-150 <https://doi.org/10.1093/ijl/icy003>
- Berasategi, J. I. (1989): «La traducción jurídico-administrativa en el País Vasco». *Revista de Llengua i Dret* 13, 29-45.
- Cabré, T. (1992): *La terminologia. La teoria, els mètodes, les aplicacions*. Barcelona: Empúries.
- Elosegi, A. (2002): *Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa lingüistikoa eta terminologikoa*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa (1936ko urritik 1937ko ekainera)*. *Hiztegia*, 1997, HAEE/IVAP.
- Freixá, J. (2002): *La variación terminológica; anàlisi de la variació denominativa en textos de diferent grau d'especialització de l'àrea de medi ambient*, Sèrie Tesis 3, Barcelona: Universitat Pompeu Fabra.
- Freixá, J. (2005): «La variación terminológica: ¿por qué y para qué?», *Meta: journal des traducteurs. Translator's Journal* 50 (4) <https://www.erudit.org/fr/revues/meta/2005-v50-n4-meta1024/019917ar/>
- Freixà, J. (2013): «Otra vez sobre las causas de la variación denominativa», *Debate terminológico* (9), 38-46.
- Gallastegi, C. (2005): «Itzulpen juridikoa eta euskararen historia», Larrazabl S. eta E. Oregi (koord.), *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea-HAEE, 87-109.
- Haugen, E. (1987): *Blessings of Babel: Bilingualism and Language Planning: Problems and Pleasures*, Mouton de Gruyter.
- Lobera, G. (2005): «Gerra-ondoko itzulpen juridikoaren bilakaera», Larrazabl S. eta E. Oregi (koord.), *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea-HAEE, 111-123.
- Lorente, M. (2013): «Terminología in vivo y variación funcional» Alberdi, X. eta P. Salaburu (arg.), *Terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*, Euskara Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2-18.
- Lozano, J. (1997): «Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean!», *Eleria* 1, 55-75.

- Mitxelena, K. (1954): EGAN, 1954 (2-4) 39 (Euskaltzaindiak Axularren *Geroren* argitaratzeari buruz) [*Euskal idazlan guztiak*, II, Euskal Editoreen Elkarte, 39].
- Mitxelena, K. (1961): «Euskal hiztegiak XVII-XVIIIgarren mendeetan», *Euskera* 2. Aldia, VI, 7-22 [Hemen berrargitaratua: *Koldo Mitxelena. Euskal idazlan guztiak VII*, Euskal Editoreen Elkarte. Erein, 47-66].
- Mitxelena, K. (1968): «Ortografia», *Euskera* XIII, 203-219.
- Mitxelena, K. (1978): «Sarrera gisa» Etxepare: *Olerkiak*, Txertoa, 1978, argitalpenari egindakoa [1988 *Euskal idazlan guztiak*, V, Euskal Editoreen Elkarte, 26].
- Mitxelena, K. (1984): «*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*-ren aurkezpena», I. Sarasola, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia* [Hemen berrargitaratua: *Koldo Mitxelena. Euskal idazlan guztiak VII*, Euskal Editoreen Elkarte. Erein, 25-45].
- Pagola, I. (2005): *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, Iker-18, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Sarriegi, A. (1985): «Administrazioa eta euskara: itzultzaileak eta arduradunak», *SENEZ: Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria*, 4, 11-29 <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19851201/sarriegi>
- Villasante, L. (1968): «Antziñako euskal hitzen formaz», *Euskera* XIII, 175-201.
- Zuazo, K. (2000): *Euskararen sendabelarrak*, Irun: Alberdania.